

TALAKO KANTINA USTIATZEKO KONTRATU BEREZIAREN ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN ORRIAK

I.- KONTRATUAREN EDUKIA

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren gaia hau da: Talako kantinaren zerbitzua ematea.

Kontratua baldintza agiri honetan oinarritzen da eta espedientean azaltzen dan dokumentazio teknikoarekin bat etorritz egingo da. Baldintza agiri honek kontratu balioa dauka.

2.- KONTRATUA BURUTZEKO EPEA

Kontratu honen xede den Talako kantinaren zerbitzua ematea URTE BIKO iraupena izango du, esleipena egiten den egunetik zenbatzen hasita eta urtero luzatu ahal izango da gehienez lau urte bete arte (2+2). Luzapen hori kontratuaren parte-hartzaileek adostu behar dute jatorrizko epea amaitu baino lehen.

3.- KONTRATUAREN PREZIOA

Esleipenduna behartuta egongo da Bermeoko Udalari hilero ondoko kanona ordaintzera gutxienez 350 €. Kanon hori esleipena formalizatu eta hurrengo hilabetearen lehenengo lanegunean ordainduko da.

4.- FINANTZAKETA

Kontratu honek ez dauanez inolako gasturik suposatzen Bermeoko Udalarentzat, ez da beharrezkoa inolako diru kopururik aurreikusi behar aurrekontuaren kontura.

5.- PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Kontratuaren hurrengo urteetako kanona urtero berrikusiko da, Euskal Autonomi Erkidegoko aurreko urteko KPIren %85ren arabera. Halaber, kontratuaren luzapenak egonez gero, halaxe egingi da urtero.



6.- BERMEAK

Behin-behineko bermerik ez da eskatzen.

Kontratuaren esleipendunak bere gain hartutako beharrak beteko dauzala bermatzeko, behin betiko bermea jarri behar dau. Kasu honetan behin-betiko bermea 500 eurokoa da.

Behin-betiko bermea jartzeko epea 10 egun baliodunekoa izango da, esleipena proposamena jakinarazi eta biharamunetik hasita. Bermea jartzeko bidea, Sektore Publikoaren Kontratuaren Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 96. artikuluan azaltzen diren etatik edozein izan daiteke.

Bermea, oso-osorik edo, hala badagokio, zati batean, ofizioz itzuliko da, bermerako epea amaitu eta esleipendunak bere kontratu bete behar guztiak bete eta gero.

7.- KONTRATUA BURUTZEA

Zerbitzua, xehetasun tekniko eta administrazio-baldintzekin bat etorritik kudeatuko da. Dena dela, Administrazioak, kontratuak dirauen bitartean, interes publikoko arrazoiengatik aldaketak egiteko aukera izango du, baldin eta 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen I. liburuko V. tituluaren aurreikusitako baldintzak betetzen badira, Lege berak 282. artikuluan ezartzen duenaren arabera.

Kontratua esleipendunaren gain eta kontura burutuko da, baldintza agiri honetan eta baldintza teknikoaren agiriaren finkatutako baldintzak zehatz jarraituz.

Kontratua Udalaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta Udalak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Esleipendunari edo honen agindupekoari egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartu daitezela agindu ahal izango du.

Era berean, aitatutako Errege Dekretu Legegileko 285. eta 286. artikuluen arabera, Administrazioak, bai esleipendunaren ez betetzeagatik eta, baita be interes orokorrak horrela eskatzen duelako, zerbitzuan esku hartzeko, zerbitzua kentzeko edota zerbitzua erreskatatzeko ahalmena izango du, esleipendunak eduki ditzakeen indemnitatze eskubide edo bete beharren kalte barik.

8.- ESLEIPENDUNAREN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK



8.A) Esleipendunaren betebeharrak:

Esleipenduna behartuta dago, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzera. Udalak ez dau inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

Baldintza-agiri honetan eta Agindu Teknikoen agirian ezarritakoa kontuan hartuta, eta arau osagarrietakoak ikusita, esleipendunak nahitaez bete beharko dauz honakoak:

- a) Esleipen proposamena jakinarazi hurrengo egunetik hamar egun baliadun barruan jarri beharko du behin betiko bermea.
- b) Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegileak ezarritako epe barruan kontratua formalizatzea.
- c) Zerbitzua pertsonalki ematea.
- d) Hamabost (15) eguneko epe barruan, gertatu daitezkeen ezintasunen eta bateraezintasunen barri ematea.
- e) Zerga guztiak ordaintzea bai estatukoak zein tokikoak, baita lizitaziotik eratorriak direnak.
- f) Laneko hartu-eman esparruan, Gizarte Segurantzaren eta Laneko Segurtasun eta Higiene arloan indarrean dauden xedapenak betetzea, eta, hauek arauak batez be: Langileen Estatutua, martiaren 14ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako testu bateratua, 43 eta 44 artikulua bereziki; Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra, ekainaren 20ko 1/1994 Errege Dekretuak onartutako testu bateratua, 70. artikulua ezarritakoa bereziki, honen bidez, esleipendunak bere zerbitzura dagoen langileria guztiaren lan istripu eta gaixotasun gorabehera guztiak ordaindu behar dituelarik, Gizarte Segurantzaren Nazio Institutuarekin; 1971eko martiaren 9ko Ministro-Aginduak onartutako Laneko Osasun eta Higienarako Ordenantza Orokorra; Maiatzaren 19ko 10/1994 Legea; Azaroaren 8ko 31/1995 Laneko Arriskuen Prebentziorako Legea; Bagilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretua; lanaren eta enpresarioaren jarduna kokatzen den zerbitzuan aplikagarriak diren Hitzarmen Kolektiboak, eta bai estatu mailan zein estatu mailaz kanpoko lan hartu-emanetan, gizarte segurantzaren edo laneko segurtasun eta higiene arloan indarrean dauden xedapenak.
- g) Zerbitzuaren ondorioz, hirugarrenei eragindako kalte guztiak ordaintzea, betebeharrak burutzean gertatzen direnak be bai, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 214. artikulua ezarritakoaren arabera. Horretarako, kontratuaren barruko arriskuak babesten dituen seguru polizaren kopia erantsiko da eta ordaindu izanaren frogagiria.



h) Hitzartutako jarraitasunean zerbitzu honek hartzen dauzan jarduerak burutzea eta Baldintza tekniko eta administratiboen Pleguan ezarritako baldintzetan jasotako erabilerak bermatzea.

i) Ezarritako epe barruan prezioa ordaintzea.

j) Instalazioak zainduko dauz eta bertaratzen diranei arreta osoko tratua emongo deuse.

k) Instalazioak eta elementu guztiak baldintza onean kontserbatzea, bere kontura beharrezkoak liratekeen konponketak eginez eta instalazioak hitzartu dan erabileretarako bakarrik erabiltzea.

l) Esleipendunaren gain eta kargura hitzartuta ulertzen da zerbitzua. Zentzu honetan, esleipena jakinarazten jakon hurrengo egunetik hasita 15 eguneko epe barruan bialdu beharko dau esleipendunak erantzukizun zibileko poliza- kontratuaren kopia.

m) Bermeoko Udalak ezarritako baldintzak beteten dabezan pertsona guztiak onartzea lokal horretan.

n) Kontratua amaitzen denean, instalazioak eta elementuak egoera onean itzultzea.

o) Baldintza teknikoen agirietan ezarritakoaz kanpoko obrarik, aldakuntzarik edo hobekuntzarik ez egitea instalazioetan, Udalaren baimen zehatza eta formala barik. Udalak berak erabagiko leukez ekimenaren ondorio ekonomikoak.

p) Esleipendunak eukiko dauzan langile guztien presentzia, garbitasuna eta higiene zuzenaren erantzulea izatea, baita instalazioak erabiliko dabezan guztienganako tratua ona eta begirunekoarena. Instalazio horietan burutu beharreko jarduera beti egongo dira funtzionamenduan.

q) Esleipendunak Udalari eta herritarrei jagokenean, aurrez aurreko harremon, txosten eta azalpen guztiak, ahozko zein idatzizkoak, euskeraz burutu beharko dauz. Era berean, Udalak euskera baino ez dau erabiliko bere hartu-emonetan, idatzizko zein ahozkoetan, eta ez dau inolako itzulpenik eskainiko.

Aipatutako betebeharrak horiez gain, esleipendunak ondoko zereginak izango ditu zerbitzua ematean:

a) Oinarri honeetatik gertatzen diran baldintzetan zerbitzua emotea, halaber, herriaren interesen zioengaitik Udalak ezarri leikezan



aldaketekaz, jagokon konpentsazio ekonomikoagaz, benetako eta ebaluagarriak diran kalte ekonomikoak egonez gero.

b) Tabernaren erabileran hirugarren bateri egindako kalteen ordainsaria ordaintzea.

d) Oinarri honeetan ezarritako baldintzetan edo herriaren interesa kontuan izanda sartu ahal daitekezan aldakuntzen arabera zerbitzua emotea.

Benetako kalte ekonomiko ebaluagarriak gertatuz gero, konpentsazio ekonomikoa izango leuke.

e) Kontratua sinatzen denean 30 eguneko gehiengo epe barruan zabalduko da taberna. Zabaltzea egin barik, epe hori igaro ondoren, Batzorde Errektoreak ustiatze kontratua deuseztatu egin daike.

f) Tabernako instalakuntzak jagon, ostalaritzako honelako establezimenduetarako bereziki aplikagarria dan araudia zehatz eta mehatz gorderik.

g) Jagokon kategoriari jagokozan ustiatzearen helburua eta muga orokorrak errespetatu. Esleipendunak ezin izango dau aldatu zerbitzua emateko tabernaren lokalen destinoa, egoera onean mantentzera behartuta dagoalarik, egin behar diran konponketak eginez, baita erabiltzaileek egindako narriaduren erantzunkizuna ere izango daualarik.

Kontratuaren amaieran hartu dauzan moduan entregatzen behartuta dago.

Ezin izango dau egin egitura aldatu daiken obrarik, ez eta Bermeoko Udalaren baimen espresu barik makinaria barririk jarri ere.

h) Esleipenduna behartuta dago eskuduntzadun Erakundeek behar dabezan Osasun, Turismo, Ogasuna edo, ostalaritza garapenerako behar diran bestelako lizentzia, baimenak, ea. egunean eukiten.

i) Zerbitzua emoteko orduan kaltetutako hirugarren batzuk indemnitatzea. Horretarako, kontratua sinatzerakoan, taberna zerbitzua dala eta, erantzunkizunagaitik, tabernako erabiltzaileak sartzen dan 100.000 € gitxiengo arrisku polizaren suskripzioa kreditazen dauan dokumentazioa aurkeztu beharko dau esleipendunak.

j) Hileko lehen lan egunean ordainduko dau prezioa.

k) Jardueratik eratorritako tasa eta zerga guztien ordainketa.

l) Erabiltzaileen eta tabernan lan egin behar dabenen jarrera egokiaz erantzun beharko dau.



ll) Zerbitzua emoten dauan bitartean euskeraz ariko da, euskeraren ordenantza betetuz.

m) Kantinearen kontserbazio eta mantenimendu gastuen kargu egitea, argia, ura eta garbiketa barruan diralarik. Aurrekoez gain eta Udalak kaninaren zerbitzuak esleipendunari emoten deutozanez hasita, ondorengo egin beharko dau:

1. Kantinearen komun publikoak zabalik eta garbi edukitzea egunero, plegu teknikoaren ordutegia betez.
2. Zerbitzua betetzeko eskatzen dan kualifikazioaz bat etorririk, emoten jakozan lanak betetzea.

8.b) Esleipendunaren eskubideak:

- a) Zerbitzuaren erabiltzaileengandik finkatzen diren kontraprestazioak hartzea.
- b) Kontratuaren xede den ustiapena egiteko, Talako kantinearen erabiltzea.
- c) Terraza jartzeko eskubidea izango dau, ostalaritzaren terraza eta mahaiak instalatzeko udal ordenantzak finkatutakoa jarraituz, tasak ordainduz eta udal teknikariek adierazotako irizpideen arabera.

9.- UDALAREN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

9.A) Udalaren betebeharrak:

- a) Instalazioak esleipendunaren eskura jartzea. Kontratuan ezarritako epe barruan konprometidu ebazan neurri laguntzailerik emoten ez badau eta kontraturik amaitutzat emoten ez bada edo kontratistek eskatzen ez badau, honek, eskubidea izango dau haren ordezkotako diru-kopuru edo balio ekonomikoak hartzeko.
- b) Betebeharrak betez gero, kontratuak irauten dauen denbora guztian hitzartutako okupazio egokia burutzea esleipendunari.
- c) Instalazioen erabilerean eta bertan burutuko diran jardueren aurka ez egitea, agindu leikezan aldakuntzakaz.
- d) Kontratuaren bertan behera geratuko balitz esleipendunaren erantzukizunpekoa ez dan arazoaren batengaitik, ustiapena berreskuratzeko kalte ordaina esleipendunari ordaintzea.



9.B) – Udalaren eskubideak:

Jagokozanen kalte barik, Bermeoko Udalak ahalmen honek eukiko dauz:

- a) Interes publikoak eskatzen dauzan aldakuntzak agintzea zerbitzuan.
- b) Zerbitzua emotean erabiliko diren obrak, instalazioak eta okupazioa bera behar dan moduan mantendu eta burutzeko aginduak emongo dauz.
- c) Egiten dauzan lege-urratzeak dirala eta, esleipendunari zuzentze neurriak ezartzea.
- d) Udalak zerbitzua emoteko esleipendunari lagatutako instalazioak berreskuratzea.
- e) Kontratuaren xede dan zerbitzua etetea.

10.- KONTRATISTAREN ERANTZUNKIZUNA KONTRATUA BURUTZERA KOAN BESTE BATZUEI ERAGINDAKO KALTEENGAITIK

Kontratua burutzen den bitartean, esleipendunaren ardura da edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu publiko edo pribaturi egindako kalteak eta galerak bere gain hartzea, baldin eta bere agindupean dauden langileen egitez, ez-egitez nahiz zabarkeriaz, edo zerbitzua behar bezala ez antolatu, babestu edo bestelakoengatik gertatzen badira. Gauzak horrela, esleipendunaren ardura da kontratuko eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoaren Kontratuaren Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 214. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

11.- KONTRATUA ALDATZEA

Kontratazio plegu edo iragarkian beren beregi aurreikusitako kasuez gain, Sektore Publikoaren Kontratuaren Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 107. artikuluan ezarritako kasu eta baldintza zehatzetan ere kontratua aldatu ahalko da, zerbitzuaren ezaugarriak aldatuz.

Aldaketok, kontratuaren erregimen finantzarioari eragiten diotenean, Administrazioak kontratista konpentsatu beharko du, kontratua esleitu zenean, oinarritzat hartuak izan ziren inguruabar ekonomikoen oreka mantenduz



Administrazioak hartutako erabakiek zerbitzuaren garapenerako eragin ekonomikorik ez duten kasuetan, kontratistak ez du horiengatik kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

Administrazioak, hurrengo kasuetan, kontratuaren oreka ekonomikoa leheneratu beharko du, dagokion alderdiaren alde:

- Administrazioak, interes publikoko arrazoiengatik, eta I. liburuko V. tituluaren ezarritakoarekin bat etorrituz, kontratatutako zerbitzuaren ezaugarriak aldatzen dituenean.
- Administrazioaren egintzek, modu zuzenean, kontratuaren ekonomiaren funtsezko haustura dakartenean.
- Ezinbesteko kasuek, modu zuzenean, kontratuaren ekonomiaren funtsezko haustura dakartenean. Baldintza hauetarako Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 231. artikuluan zerrendatutakoak ulertuko dira ezinbesteko arrazoi legez.

Azaldutako kasuetan, kontratuaren oreka ekonomikoaren berrezarpenerako, kasu bakoitzean dagokion neurriak hartuko dira. Neurri hauek kontratua burutzeko epearen edo iraupenenaren aldaketa eta, orokorrean, kontratuaren eduki diren klausula ekonomikoen edozelako aldaketa izan daitezke. Era berean, Administrazioaren egintza eta ezinbesteko kasuetan, kontratua luzatu ahalko da, hasiera batean kontratua burutzeko finkatu den epearen %10era arteko, legalki kontratu mota honetarako finkatutako gehienezko epeak errespetatuz (3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 282. Artikulua).

Gauzak horrela, aldaketok Errege Dekretu Legegilearen 108. eta 211. artikuluetan xedatutako prozeduraren bitartez burutuko dira.

12.- PRESTAZINOA HARTZEA ETA BERME EPEA

Kontratuaren xede den zerbitzua amaitu eta hurrengo egunean instalazioak Udalaren esku utziko dira.

Kontratu mota honen izaera dela eta, ez da berme eperik jarri behar.

13.- EZ BETETZEAGATIK ESLEIPENDUNARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK

Lege-urratzeak, arinak, astunak eta larrietan sailkatzen dira.

Lege-urratze arinak hauek izango dira:



- ❑ Esleipendunak eginbeharrak betetzean atzeratzeak.
- ❑ Bermeoko Udalaren agindurik ez betetzea.
- ❑ Udal Zerbitzu Teknikoen ikuskaketeta erraztea.
- ❑ Administrazioaren ustez justifikaturik ez badaude urtean hiru egunean, gehienez, zerbitzurik ez ematea.

Esleipendunak lege-urratze arina egiten badu 100 euroko zigorra jarriko zaio.

Lege-urratze larriak hauek izango dira:

- ❑ Esleipendunak zigor arinak sortarazten dituen egintzetan behin eta berriro jaustea.
- ❑ Ondasun edo instalakuntzen deprezazioa emango lukeen esleipendunaren jarrera.
- ❑ Zerbitzua emateko eraikinak anormaltasunez erabiltzea.
- ❑ Zerbitzu horren helburua ez den jarduera baten aritzea.
- ❑ Ezarriko diren ordutegia eta oporraldi txandak ez betetzea.

Kasu hauetan 1000 euroko isuna jarriko da.

Lege-urratze larriak hauek izango dira:

- ❑ Esleipendunaren betebeharrak garrantzitsuenen lege-urratze larria.
- ❑ Zigor astunetan behin eta berriro jaustea.
- ❑ Ustiaketa utzi, berrakuratu edo jabez aldatzea.

Lege-urratze larri bat egiteak, kontratua iraungitzea suposatuko dau.

Lege-urratze arinagatik zigorra ezartzeak espediente sumarioa beharko du, bertan lege-urratzailea entzun beharko delarik.

Hutsegite astuna edo larriekin lege-urratzeak zigorra jartzeko araudiak ezarritakoaren arabera zigortuko dira.

A) KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK DIRELA ETA

Esleipendunaren erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan kontratua burutu gabe badago, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo kontratua burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,20 euro kontratuaren kanonaren 1.000 euroko (212. Artikulua).

Atzerapenagatik zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren kanonaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.



B) PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA DELA ETA

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo baldintza administratibo berezien orrietan aipatzen diren zigorrak ezartzea (212.7. artikulua).

14.- KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 223. eta 286. artikuluetan azaltzen direnak izango dira, 223. artikuluko d) eta e) letretan aurreikusitakoak izan ezik.

Kontratua amaitzearen ondorioak 225. eta 288. artikuluetan aurreikusten direnak izango dira.

15.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Administrazioari dagokio a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegileak ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

II.- KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA

16.- ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA

Kontratu honen esleipena eskaintako kanonaz gain, bestelako irizpide batzuk baloratuta egingo da, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 157 eta 150. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik.

Esleipena egiterakoan, honako irizpide hauek hartuko dira oinarritzat:

Irizpide kuantifikatzaileak: 50

1. Eskaintza ekonomikoa: eskaintza ekonomikorik altuena 50 puntu arte
Eskaintza ekonomiko altuenari 50 puntu emongo jakoz eta lizitazio prezioari 25. Gainontzeko eskaintzak proportzionalki puntutatuko dira.



Balio-judizioaren menpeko irizpideak: 50

2. Memoria teknikoa: 35

- Zerbitzuaren antolaketa eta proposatuko dan ustiapen-plana: 20
- Administrazioak jarritako materialaz gain enpresarioak ipiniko dituen elementuen kalitatea, originaltasuna eta itxura. Hauek ingurunearekin kontsonantzia egon beharko dira. Debeakututa gelditzen da plastikozko altzariak ipintzea eta baita merkatal publizitatea edo babesa dutenak ipintzea bai kantinearen barruan zein terrazan: 10
- Kontratuaren objektu diran espazio eta lokalen mantenu eta garbiketa programa, hondakinen kudeaketa sistema: 5

3. Lizitatuzaileek aurkeztutako hobekuntzak eta zerbitzua hobetzeko balio dabenak: 10

4. Bertan lan egingo daben langileen prestakuntza: 5

17.- ESKAINTZAK AURKEZTEA

Kontratazio honen espediente, bai eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, honako lekuan, ordutegian eta epean aztertu aurkeztu ahal izango da:

LEKUA: Udal honetako Urigintza, Obra eta Ingurumen Sailan (Intxausti kalea, 2).

ORDUAK: Asteleheneetik barikura 09:00-14:00.

EPEA: Egun baliodunetan, lehiaketa honen Iragarkia web gunean argitaratzen denetik proposamenak aurkezteko epea bukatu arte.

Bestalde, proposamenak ondoko lekuan eta ordutegian **aurkeztuko** dira, **egutegiko hamabost (15) eguneko epean**, lizitazio iragarkia Bermeoko Udaleko kontratatzailearen profilean argitaratzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasita:

LEKUA: Administrazio honetako ERREGISTRO OROKORRA (**BERH@Z** - Bermeoko herritarrentzat arreta zerbitzua, Ertzilla kalea 6-8 48370 BERMEO).

ORDUAK: Asteleheneetik barikura 08:30-14:30. Martitzenetan eta eguenetan 16:30 – 19:00. Larunbatetan 10:00 – 13:00. *Udan arratsaldeetan itxita egongo da bulegoa.

Lehiatzaileek hiru kartazal (A, B eta C) aurkeztu beharko dituzte itxita. Kartazal bakoitzean enpresaren izena eta eskaintzaren izenpetzailearen izen-abizenak



adieraziko dira, noren izenean izenpetzen duen zehaztuz. Hiru kartazalak ere izenpetuta egon beharko dira.

“A” kartazalaren azpiztitulua hau izango da: “KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA”. Hona hemen “A” kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

- a) Lehiatzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia, eta horrez gain, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalordea.
- b) Lehiatzailea pertsona juridikoa izanez gero:
 - Dagokion Erregistro publikoan behar bezala erregistratutako eskritura edo eratze dokumentua, estatutuak edo sortze data.
 - Administrazioarekin kontratatu ahal duela egiaztatzen duen eskritura edo ziurtagiria, proposamena sinatzen duenaren alde.
 - Arduradunaren NAN.
- c) Kontratatzeke debekurik ez duela aitortzea (II. Eranskina).
- d) Udalarekin zorrik ez izatea.

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. Kopiak aurkeztekotan, behin-betiko esleipena egin orduko, Administrazioak edo notarioak behar bezala kautotu edo egiaztatu behar ditu.

“B” kartazalaren azpiztitulua hau izango da: “FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU EZINEZKO IRIZPIDEEN DOKUMENTAZIOA”. Hona hemen “B” kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

- a) Formula matematiko bidez kuantifikatu ezinezko irizpideetarako beraien eskaintzen balorazio eta ponderaziorako beharrezko den dokumentazioa.
- b) Irizpide ez matematiko horien inguruko dosierra.

Kartazal honek ez du, inongo kasutan, lizitzaileen eskaintza ekonomikorik, horren gaineko dokumentu garrantzizkorik ezta formula matematiko bidez kuantifikagarri diren irizpideen gaineko alderik bere barne edukiko.

“C” kartazalaren azpiztitulua hau izango da: “PROPOSAMENA ETA FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEN DOKUMENTAZIOA”. Hona hemen “C” kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

- a) **Proposamen ekonomikoa**, eskaintzaileak edo aurkezten duen pertsonak **sinatuta**, administrazio-klausula partikularren Pleguaren I. **Eranskin gisa agertzen den ereduaren arabera** idatzita.
- b) Dokumentazio Teknikoa: Eskaintzaileek orrialdeak zenbatuta dituen



dosier bat aurkeztu behar izango dute, dagokion izenburuarekin. Hala, banan-banan jaso beharko dira lehiaketa esleitzeko formula matematiko bidez baloratuko diren irizpideei buruzko alderdi oro.

- c) Hala aurreikusten bada, C gutun-azal honetan proposamen ekonomikoaren ereduaren eranskinak sartuko dira.
- d) Ez dira onartuko proposamen hauek:
 - 1) Kontraesanak, ez aipatzeak, akatsak edo zirriborroak dituztenak, Administrazioak eskaintza aintzat hartzeko funtsezkotzat jotzen duena argi ikustea eragozten badute.
 - 2) Aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin bat ez datozenak.
 - 3) Eskaintzaren aurrekontua edo gehienezko tasa gainditzen dutenak.
 - 4) Proposamenaren zenbatekoan akats argia dutenak.
 - 5) Pleguaren I. Eranskin gisa ezarritako proposamen eredia nabarmen aldatzen dutenak.
 - 6) Eskaintzailearentzat biderra ezin egiten duten akatsak edo funtsik ez dituztenak.
- e) Letretan adierazitako eskaintza zenbakietan adierazitakoarekin bat ez badator, letretan adierazitako kopurua nagusituko da; dokumentazioa aztertu eta gero, arrazoizko irizpideak erabiliz, Kontratazio Mahaiak beste jarrera bat hartzen ez badu salbu.
- f) Eskaintza bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du. Pleguan baimena ematen bada bakarrik, soluzio aldakorak izan ahalko ditu; hortaz, eskaintza ekonomikoak ere ezberdinak izan ahalko dira.

18.- PROPOSAMENEN AZTERKETA

Behin, eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta gero, Kontratazio Mahaiak epe eta modu egokian jasotako dokumentazioa ("A" kartazala) sailkatuko du, eta, dokumentazio horretan akats materialak sumatuz gero, hiru laneguneko epea emango deutso lehiatzaileari akatsa zuzen dezan (Kontratazio Legearen Erregelamenduaren 81. art).

Eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta gero, hilabeteko epean gehienez (160.1. art), aurkeztutako eskaintzak jendaurrean irekiko dira Kontratazio Mahaiak erabakitako egunean. B kartazala zabalduko da arinago (irispide ez matematikoak) eta, behin puntuatuta daudenean, C kartazala (proposamena eta irispide matematikoak) zabalduko da jendaurrean. "A" kartazalean egon ahal izan diren akatsak zuzentzeko eperik eman bada, epe horrek ez du hilabeteko gehienezko epearen zenbaketa atzeratuko, eta berau eskaintzak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatuko da beti. Era berean, aurkeztutako eskaintzak jendaurrean irekitzeko ekitaldiaren berri emango zaie aurretiaz lehiatzaileei, Telefonoz, posta elektronikoz edo faxez.



Ondoren, eta, hala badagokio, egoki diren txosten teknikoak egin eta gero, Kontratazio Mahaiak esleipena egin behar duen Kontratazio Organoari pasako deuto esleipen proposamena.

19.- ESLEIPENA ETA FORMALIZAZINOA

Prezioaz gainera irizpide desberdinak baloratzen direnez, esleipena 2 hilabeteko gehienezko epean egingo da, proposamenak ireki eta biharamunetik kontatzen hasita (161.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz).

Edozein kasutan esleipena egin aurretik, esleipen proposamenean agertzen den hurrenkera jarraituz, zerrendan lehenengo agertzen den parte hartzaileari, errekerimendua egingo zaio, hau jaso eta 10 eguneko epean, honako hauek egiteko (151.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz):

- a) Agiriak aurkeztu edo konpultsatu.
- b) Behin betiko bermea eta, egoki bada, berme osagarria jarri.

Epe horretan egingo ez balitu, uko egiten duela ulertuko da eta zerrendako hurrengokoari deituko zaio aipatutakoak egin ditzan. Uko egiten duenaren, behin behineko bermea Udalaren esku geratuko da.

151.2 artikuluan zehaztutako dokumentazioa jaso eta hurrengo egunetik hasita 5 egun balioduneko epean kontratazio organoak kontratua esleituko du.

Guztiarekin, esleipena motibatua izan beharko da, lizitatzzaileei jakinaraziko zaie eta, aldi berean, web orrialdean publikatuko da (151.4 artikuluan xedatutako gutxieneko eduki eta baldintzak jarraituz).

Kontratua kontratazio gaiko helegite berezia ezartzeko modukoa bada (40.1 artikulua), ezin izango da notifikazioak bidali eta 15 egun baliodun baino lehenago formalizatu (autonomia erkidegoek hilabetera arteko luzapena ezarri ahaliko dute epe honi dagokionez).

Kasu honetan, kontratazio organoak errekerimendua egingo dio esleipendunari, behin helegitea jartzeko epea helegiterik gabe igaro eta gero, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik hasita gehienez 5 eguneko epean formalizazioa egin dezan.

Gainerako kasuetan, esleipendun eta lizitatzzaileek esleipenaren notifikazioa jaso eta hurrengo 15 egun balioduneko epe barruan egingo da formalizazioa (156.3 artikulua).

Formalizazio burutzeko esleipendunak hauek burutu beharko ditu:



- Behar besteko erantzukizun zibileko aseguruak suskribatu duela frogatzeko, poliza- kontratuaren eta errezioboaren kopiak aurkeztu.
- Administrazio honen bulegoetara etorri, kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko.

Esleipena parte hartzaileei jakinarazteaz gain, formalizazioa web orrialdean publikatuko da eta, kontratuaren prezioa 100.000 euro baino handiagoa izango balitz, BAOen ere publikatu beharko da.

Kontratazio-organoak egingo duen esleipenaren bitartez, kontratuak indar juridikoa hartuko du.

Esleipendunaren erruagatik kontratua dagokion epe barruan formalizatu gabe geratzen bada, Administrazioak ezarri duen behin behineko bermearen zenbatekoaren atxikipena adostu ahal izango du, behin betiko bermearen gainean.

20. KONTRATUA FORMALIZATZEARI ADMINISTRAZIOAK UKO EGITEA

Kontratazio organoak uko egiten badio deialdia egin ostean kontratu bat egiteari, edo esleipenerako prozedura berriz hastea erabakitzen badu, hautagaiei edo lehiatzaileei jakinaraziko die.

Kontratua egiteari uko egitea edo prozedura bertan behera uztea kontratazio organoak baino ezin dezake erabaki, behin-behineko esleipenaren aurretik. Kasu bietan hautagaiei edo lehiatzaileei izan dituzten gastuak konpentsatuko zaizkie, iragarkian edo baldintza-agirian jasotako moduan, edo Administrazioaren erantzukizuna arautzen duten printzipio orokorren arabera.

Espedientean behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiengatik baino ezin izango zaio uko egin kontratu bat egiteari. Kasu horretan, ezin izango da xede berarekin beste lehiaketarik sustatu uko egite horren oinarria izan diren arrazoiek bere horretan dirauten bitartean.

Prozeduraren uko egitearen oinarria kontratua prestatzeko arauetan edo esleipen prozedura arautzekoetan konpon ezin litekeen arau-haustea izan beharko da, eta arrazoi hori dagoela justifikatu beharko da espedientean. Uko egiteak ez du eragotziko beste lehiaketa prozedura bat hastea berehala.

III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA



21. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Baldintza-agiri honen arabera egin behar den kontratua administrazio-mailakoa izango da, eta kontratuan bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, bereziki Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilean ezarritako arauak bete beharko dira. Horiez gainera, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrak, eta bai herri administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerakoak ere.

Administrazio-baldintza zehatzen agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

22. KONTRATAZIO ARLOKO ERREKURTSO BEREZIA

Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri baino lehen, kontratazio arloko errekurtsu bereziaren mende egongo dira 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 40. artikuluko 2. atalean aipatzen diren erabakiak; harmonizatutako erregulazioaren mende dauden obra, obra publikoen emakida, zerbitzu, hornidura, Sektore Publiko eta Sektore Pribatuaren arteko lankidetzak kontratuak eta akordio markoak; Legearen 17. Artikuluan aurreikusitako subentzionatutako kontratuak; II. Eranskinen 17.etik 27. kategoriara arte sailkatuta dauden eta 193.000 euroko edo gehiagokoak diren zerbitzu kontratuak, eta hastapen-gastuen aurrekontua 500.000 eurokoa eta iraupen epea bost urte baino gehiagokoa duten zerbitzu publikoen kudeaketa kontratuak barne.

113. artikuluan arautzen den larrialdiko tramite bidezko esleipen prozeduran ebatzitako ekintzetan ez da errekurtsu hau emango ezta, behin kontratua esleituta, baldintza orrietan aurreikusita ez dauden kasuetan ematen diren 105. artikulutik 107. artikulura bitartez burututako kontratuen aldaketekin loturiko kontratazio organoen erabaki eta ebazpenen aurka, horiek esleipena bertan behera uztea edota esleipen berri bat egitea erabaki arren.

Errekurtsu bereziaren mende egon ahal izango dira botere adjudikatzailerik hartutako esleipen akordioak; lehiaketa arautzen duten baldintza agiriak, lizitazio iragarki eta prestazioaren ezaugarriak ezartzen dituzten agiriak; tramite ekintzak, betiere azken horiek esleipenean zuzenean edo zeharka erabakitzen badute, prozedura jarraitzea eragozten badute edo defentsarik eza edo bidezko eskubideren edo interesen baten konpondu ezinezko galera eragiten badute. Prozedura jarraitzea eragozten duten tramite ekintzat hartuko dira lizitatzailerik baztertua erabakitzen duten Kontratazio Mahaiaren ekintzak.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoez aparte, beste ekintza batzuei eragiten dieten tramitazio akatsak espedientea egitea dagokion organoari edo



kontratazio organoari jakinarazi ahal izango dizkiete interesdunek, zuzen ditzaten, eta esleipen ekitaldia errekurritzerakoan interesdunek eragiten dizkieten irregulartasunak alegatu ahal izatearen kalterik gabe.

Errekurtsoa beren bidezko eskubideetan edo interesetan kalteak jasan dituzten pertsona fisikoek eta juridikoek aurkeztu ahal izango dute, edo errekurtsoaren xedea diren erabakiengatik kaltetuak izan daitezkeenek.

Toki Korporazioen eremuan, Autonomi Erkidegoetako arauak zehaztuko dute errekurtsoak ebazteko eskumena, baldin-eta Autonomi Erkidego horiek eskumen araugile eta exekuziozkoak esleituta badituzte, toki erregimen eta kontratazio arloari dagokionean.

Arau autonomikoetan beren beregizko aurreikuspenik ez dagoen kasuetan, toki korporazioa integratzen den Autonomi Erkidegoak, bere esparruan, eskudun izendatu duten organo berak izango du eskumena.

3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 40.1 eta 40.2 artikuluetan aurreikusitako egintzetatik edozeinen aurka errekurtsoa aurkeztea helburu duen edonork aurretiaz adierazi beharko du kontratazio organoaren aurrean aurkeztutako idazki bidez eta errekurtsoaren objektu izango den prozedimentuko egintza zehaztuz. Hori errekurtsoaren aurkezpenerako hurrengo paragrafoan ezartzen den epe barruan egin beharko du.

Kontratazio arloko errekurtso bereziaren prozedura hasiko da, aurkaratutako ekintzaren jakinarazpena bidali eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta hamabost laneguneko epean aurkeztutako idazki bidez, 151.4 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Goiko paragrafoan adierazitakoaren kalterik gabe:

Errekurtsoa pleguen eta gainerako kontratuko dokumentuen edukiaren aurka ezartzen denean, epea zenbatzen hasiko da beroriek jasotzen direnetik edo lizitatzailerik edo hautagaien ezagutzarako beraien eskura jarri eta hurrengo egunetik aurrera.

Esleipen prozedurako tramite egintzen aurka, edo publizitate gabeko prozedura negoziatuaren aplikazio egintzen aurka ezartzen denean, epea zenbatzen hasiko da balizko arau-haustearen berri izan eta hurrengo egunetik aurrera.

Errekurtsoa lizitazio iragarkiaren aurka jartzen denean, argitalpenaren hurrengo egunetik zenbatzen hasiko da epea.

Errekurtso idazkia kontratazio organoaren erregistroan, edo errekurtsoaren gainean ebazteko eskumena daukan organoaren erregistroan aurkeztu beharko da nahitaez. Idatzi horretako akatsak, hala badagokio, hiru laneguneko epean zuzendu beharko dira.



Errekurtso bat aurkezten bada, 5 laneguneko epean helaraziko zaie gainerako interesdunei, aurkezpenaren hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eta halaber bost laneguneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko. Era berean, espedientea tramitatu duen erakunde, organo edo zerbitzuari espedientea eskatuko zaio, eta hurrengo bi lanegunen barruan igorri beharko du dagokion txosten eta guzti. Lehiatzaileak, edozein kasutan, interesdunak izango dira errekurtsoen prozeduran.

Interesdunen alegazioak jaso ostean, edo alegazioak aurkezteko epea igaro ostean, eskumendun organoak hurrengo bost lanegunen barruan eman beharko du errekurtsoaren gaineko ebazpena, eta ebazpenaren berri interesdun guztiei eman beharko die.

Errekurtsoaren ebazpenak errekurtsoa edo haren parte bat baietsiko ditu, edo formulatutako asmoak ezetsiko ditu, edo ez onartutzat adieraziko ditu, eta arrazoituta erabakiko ditu aurkeztutako kontu guztiak. Edozein kasutan, ebazpena bat etorriko da eskabidearekin eta, onartuz gero, esleipen prozeduran hartutako legez kanpoko erabakien deuseztapenaren gainean ebatziko du, lehiaketa iragarkian, gonbit iragarkian, baldintza-agirietan, kontratua edo lehiaketarekin edo esleipenarekin zerikusia daukan beste edozein dokumentu arautzeko baldintzetan jasotako ezaugarri tekniko, ekonomiko edo finantzario baztertzailak ezabatzea barne hartuta, baita ekintzen atzeraeraginaren gainean.

Errekurtsoaren ebazpenean erabakiko balitz kontratua beste lehiatzaile bati esleitzea, azkeneko horri hamar laneguneko epea emango zaio 151. artikuluko bigarren paragrafoan jasotakoa betetzeko.

Errekurtsoaren ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baino ezin izango da aurkeztu, Administrazioarekiko Auzietarako Eskumenei buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoaren arabera.

23. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratutik sortzen diren auziak Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bidez konpondu daitezke, indarrean dagoen legerian zehaztutakoarekin bat etorritik.

Bermeon, 2015eko apirilaren 30ean



I. ERANSKINA
Proposamen ekonomikoaren eredia

..... Jaun/Andreak,
..... Helbidearekin eta
zenbakiduneko NANarekin, nire izenean edo
Helbidea eta IFZ daukan
izeneko enpresaren ordez,

AITORTZEN DUT:

- I.-
xedeak daukan kontratuaren lizitazio iragarkiaren berri izan dudala.
II.- Kontratua arautzen dituen Baldintza Administrazioen eta Teknikoen Orriak
ezagutzen dituela, horiek onartzen dituelarik.
III.- Ordezkatzen dudako enpresak indarrean dagoen araudiak finkatutako
baldintza eta irizpide guztiak betetzen dituela.
IV.- Aipatutako kontratuaren betearazpena(zenbakitan/hitzetan)
Eurotan, BEZ kanpo, proposatzen dudala. BEZari dagokion zenbatekoa
.....€koa (zenbakitan /hitzetan) izango dala.

Bermeon, 2015ekorenan.

Sinatuta:
NAN:



II. ERANSKINA Zinpeko Aitorpenaren Eredua

Jaun/Andreak,.....zenbakiduneko NANarekin,
..... helbidea etaIFZ daukan
.....izeneko enpresaren ordez,

KONTRATAZIO MAHAIAREN LEHENDAKARIAREN AURREAN AITORTZEN DU

Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 60. artikulua ezartzen dituen debekuetatik bat bera ere ez duela.

Eta dagozkion ondorioetarako jasota gera dadin, adierazpen hau sinatzen dut.

Bermeon, 2015ekorenan.

Sinatuta:

NAN:

